BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalerengetitza.araba.eus/alar/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416dbb07e937f0b0c00U

Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara sartzeko dirulaguntzak emateko 2025eko oinarri arautzaileak

Lehenengoa. Oinarrien xedea

Oinarri hauen helburua da Aiarako Udalak, bere euskara arloaren bidez, Aiarako udalerrian kokatutako merkataritza eta ostalaritza establezimenduei eta zerbitzu enpresei 2025ean emango dizkien dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, indarrean dagoen deialdian (2025eko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra) egindako errotulazio lan berrietan euskara txertatzeagatik. Jarduketa 2025eko abenduaren 31 baino lehen egin behar da.

Laguntza horrekin, beste hizkuntza batzuek (nagusiki, gaztelaniak) ia guztiz monopolizatuak eremu batean euskararen presentzia sustatu nahi da, eta, horrela, errealitatea ofizialki aitortutako egoera elebidun batera hurbilduko da.

Aldi berean eta bereziki, jarduketa honen helburu soziolinguistikoa paisaia linguistikoan eragitea da, eta, hala, euskararen motibazio eta erabilera alorretan jardutea.

Dirulaguntzei honako hauek aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta aplikatu daitezkeen legeria osagarria.

Bigarrena. Dirulaguntza jaso ahal izango duten errotulazioak

Honako hauek hartuko dira kontuan dirulaguntzak emateko:

- a) Dirulaguntzak emango dira honako euskarriotan euskara sartzeagatik:
- Saltokiko kanpoko errotulu nagusia eta identifikatzailea: onuradunaren jarduerari edo jardueraren ezaugarriei buruzko informazioa eman behar du. Errotulu nagusia bat bakarra da.

— Olanetako errotuluak: erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazioa edo jarduera horri buruzko informazio espezifiko eman behar du. Ezingo du izan erakundetik kanpoko bestelako publizitate elementurik.

— Ibilgailu industrialetako errotuluak: erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informa- zioa edo jarduera horri buruzko informazio espezifiko eman behar du. Ezingo du izan erakundetik kanpoko bestelako publizitate elementurik.

— Merkataritza informazioa jasotzen duten xafletako errotuluak, betiere, bide publikotik ikusten diren atari edo sarbideen kanpoaldean badaude eta eskaintzen den zerbitzuari buruzko informazioa badute, atariaren helbideaz, telefono zenbakiaz, eta antzekoez gainera.
- b) Aurreko baldintzak betetzen badira eta errotulua euskaraz badago oso-osorik, errotulatutako euskarriaren kostuaren zerga oinarriaren ehuneko 70era arteko dirulaguntza emango da eta, beraz, oinarri hori dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat joko da.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

2025 - 69520/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalerenegoitza.araba.eus/alar/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416dbb07e937f0b0c00U

Errotulua euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan baldin badago, errotulatutako euskarriaren kostuaren zerga oinarriaren % 35eko dirulaguntza emango da, eta oinarri hori dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat joko da.

Edonola ere, onetsitako dirulaguntzaren zenbatekoaren gehieneko kopurua deialdian zehaztuko da.

Errotuluan euskaraz gainera beste hizkuntza batzuk badaude, euskara beste hizkuntzekiko berdintasunez edo lehentasunarekin tratatu beharko da dirulaguntza jaso ahal izateko. Horretarako, irizpide hauek bete beharko dira:

1. Irakurketa ordenari jarraikiz, euskara beste hizkuntzen aurretik agertu behar da. Hau da, testua bertikalean idatzita badago, euskara beste hizkuntzen aurretik egon behar da, eta testua horizontala bada, euskara ezkerrean egon behar da.
2. Grafiak edo testuak tamaina ezberdinekoak badira, handiena euskaraz idatzita egon behar da.
3. Beharrezkoa bada, ondoren zehaztutako hierarkia tipografikoak erabiliko dira, garrantzitsuenetik garrantzia gutxien duenera. Edonola ere, euskaraz dagoen testuak beste hizkuntzek baino eskala handiagoa izan behar du:

— Letra larriak > Letra xeheak.

— Azpimarratuta > Azpimarratu gabe.

— Lodia > Arrunta.

— Arrunta > Etzana.

— Balio handiagoa > Balio txikiagoa.
4. Ez dira erabili behar nahitaezkoak ez diren eta hizkuntzetako bat diskriminatu dezaketen elementuak. Adibidez, helbideak idaztean lehentasuna izango du “Iturran 25” moldeak “calle Iturran, número 25” moldearen aurrean, administrazio hizkuntzaren gomendio orokorren eta nazioarteko gomendioen arabera.
5. Bi hizkuntzetako testuak banatuta badaude, euskarazkoa beste hizkuntzetakoa bezainbeste edo hobeto ikusi behar da.

c) Oinarri honetako a) eta b) apartatuak errotulazio elementu independente bakoitzean aplikatuko dira; hau da, errotulu nagusi, olana edo ibilgailu bat baino gehiago behar bada, laguntzak biderkatu egingo dira.

d) Ez dira diruz lagunduko establezimenduaren izen berezia, abizena edo izen-abizenak, toponimoa edo antzekoak soilik jasotzen duten errotuluak. Hau da, deialdi honen bidez zerbitzuaren izenaren elementu generikoak erabiltzea sustatu nahi da (harategia, okindegia, jatetxea, eta abar).

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

2025 - 695

20/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalenegoitza.araba.eus/aiara/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416dbb07e937f0b0c00U

e) Ez dute dirulaguntzarik jasoko zuzen idatzita ez dauden edo akats ortografikoak dituzten lanek. Horretarako, lana egin aurretik, Euskara Arloaren aholkularitza jasoko da.

Laguntzak emango dira betiere errotulatutako testua euskaraz idatzita badago (bakarrik euskaraz edo beste hizkuntza batzuekin batera) eta euskarria saltokiaren kanpoko identifikazio errotulu nagusia, olana edo ibilgailua bada. Identifikazio errotuluetan ez zaie dirulaguntzarik emango bigarren mailako kartelei, errotulu nagusiei baizik.

Hirugarrena. Dirulaguntzen deialdiaren zenbatekoa

Dirulaguntzen deialdi honetarako aurrekontuko gehieneko zuzkidura 3.000,00 euro izango da.

Gastua 2025ean indarrean dagoen Aiarako Udalaren aurrekontuaren 335 471000 partidaren (“Saltoki, enpresa eta abarretako errotulazioetarako euskara dirulaguntza”) kontura izango da.

Eskaera guztiei aurre egiteko aurrekontu esleipena egonez gero, dirulaguntza osorik emango da. Aurrekontu esleipen nahikorik ez badago, eman beharreko laguntza guztiak ehunekoetan murriztu ahal izango dira, eskuragarri dagoen aurrekontura egokitzeko.

Laugarrena. Ebazpen eta haztapenetarako balioespen irizpideak

Laguntza hauen nolakotasuna dela eta, ez da irizpiderik ezarriko laguntzak baloratzeko.

Bosgarrena. Eskatzaileak

5.1. Honako hauek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak: Aiarako merkataritza establezimendu baten titularrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak, ostalariak edo zerbitzu enpresak (beharrezkoa izango da irekita dagoen merkataritza establezimendu bat izatea eta hori Aiaran kokatuta egotea), 2025ean dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak egiten ari direnak edo egin dituztenak, eta honako betekizunak betetzen dituztenak:

- Egoitza soziala edo egoitza Aiaran izatea.
- Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Dirulaguntzaren onuradun izateko debekurik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.2. Ez dute dirulaguntzarik jasoko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek.

Seigarrena. Eskaerak aurkeztea eta epeak

6.1. Eskaerak aurkezteko epea: hilabetekoa izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaerak Aiarako Udaleko Erregistro Orokorrean (udal bulegoetan), Aiarako Udaleko egoitza elektronikoan edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan aurkeztuko dira.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

2025 - 69520/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalerenegoitza.araba.eus/alar/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416ddb07e937f0b0c00U

6.2. Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira udalaren web orrian: www.aiarakoudala.eus.

6.3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Diseinuaren proba, errotulatu beharreko testua eta errotulazio lanaren aurrekontu xehatua. Eginda badago, fakturaren kopia konpultsatua. Fakturarekin batera ordainagiria aurkeztuko da.
- b) Eskaria pertsona fisiko batek izapidetzen badu, eskaria sinatu duenaren NANaren kopia; alderantziz, pertsona juridikoa bada, IFK txartelaren kopia, ordezkaritzan jarduten duen pertsona fisikoaren NANaren kopia eta pertsona fisiko hori pertsona juridikoaren legezko ordezkaria edo ordezkari baimenduna dela dioen egiaztagiria.
- c) Eskatzailearen izenean dagoen banku kontuaren zenbakia, dirulaguntza ordaintzeko.
- d) Eskariari buruzko zinpeko adierazpena eta/edo deialdi honetako xede bera duen beste dirulaguntza bat jaso izanarena. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta dirulaguntza eman den edo ez zehaztu beharko da.
- e) Administrazio eskudunak egindako ziurtagiria, eskatzaileak Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, edo, hala badagokio, eskatzaileak izenpetutako agiria, adierazten duena ez diola aurka egiten Aiarako Udalak administrazioaren eskuetan dauden datuez beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egiteari, datuen bitartekotzarako eskura dituen sistemez baliatuz. Berariaz aurka eginez gero, aipatutako erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak (II. eranskina).

6.4. Eskaera (pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da, albo batera utzita dirulaguntza zenbat jarduketetarako eskatu nahi den):

- I. eranskina aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.
- II. eranskina aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Halaber, eskaera guztietan kontuan hartu beharko da edozein dirulaguntzaren bitartez eskuratzen den finantzaketak ezingo duela gainditu jarduketaren kostua.

Udalak egokitzen jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko.

Eskabidea behar bezala beteta ez badago edo aipatutako datu nahiz agirietako bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan, eta ohartaraziko zaio, hori egin ezean, besterik gabe eskabidea artxibatu egingo dela.

Zazpigarrena. Balioespen irizpideak

Bigarren oinarriko betekizunak betetzen badira dagokion dirulaguntza emango da, betiere, aurrekontu eskuragarritasuna egonez gero.

Zortzigarrena. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

2025 - 695

20/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalenegoitza.araba.eus/alar/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416ddb07e937f0b0c00U

Aiarako Kuadrillako euskara teknikariak aztertu eta balioetsiko ditu eskaerak, eta txosten bat egingo du, zeinaren berri emango baitzaio Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordeari. Egokia iritziz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak aztertu edo balioesteko.

Behin betiko ebazpena hartzea Aiarako Udaleko alkate-lehendakariari dagokio. Erabakiak laguntza eman edo ukatuko du, eta ukatuz gero, horren arrazoia jasoko du. Ebazpena edozein dela ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango da.

Egokitzen jotzen denean, Euskara Arloak aurkeztutako dokumentazioari buruzko datuak eta azalpenak eskatu ahal izango ditu. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan aurkezten ez badira, espedientearen atzeratu liteke edo behin betiko artxibatu ahal izango da.

Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa bada, ebazpenean laguntzaren zenbatekoa, ordainketa modua eta baldintzak jasoko dira.

Eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik hiru hilabete igaro ondoren berariazko ebazpenik ez bada eman, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

Bederatzigarrena. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua

Behin betiko ebazpena onetsi ondoren, eskatzaile guztiei bidaliko zaie. Ebazpena arrazoitua izango da eta, betiere, ebazpenaren oinarriak frogatuta geratu behar dira.

Dirulaguntza emango zaien eskatzaile guztien zerrenda eta gainerako eskarien ezestearena jaso beharko dira, eta erabakiok hartzeko arrazoiak azaldu beharko dira.

Era berean, adierazi beharko dira laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta emateko baldintzak, bai eta aurkeztutako justifikazioaren onespena ere.

Dirulaguntza horien % 100 ordainduko da dirulaguntzaren justifikazioa onetsi ondoren, eta hori guztia hamargarren oinarrian jasotakoari jarraiki egingo da.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete da. Epea deialdia argitaratzen den unean hasiko da, betiere deialdiak berak ez baditu ondorioak atzeratzen geroagoko beste data batera.

Hamargarrena. Justifikazioa

10.1. Justifikatzeko epea:

Pertsona edo erakunde eskatzaileek dirulaguntzaren justifikazioa beranduenez 2026ko urtarrilaren 31n aurkeztu beharko dute. Epe horretan aurkeztu beharko dira egindako jarduketaren faktura guztiak, ordainagiriak eta oinarri honetan adierazitako gainerako agiriak.

10.2. Dirulaguntzak justifikatzea:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez Udalak emandako diru kopurua bakarrik, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek xedatzen duen moduan.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

2025 - 695

20/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalenegoitza.araba.eus/alar/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416dbb07e937f0b0c00U

10.3. Justifikatzeko sistema:

Dirulaguntza justifikatzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Egindako errotulazio lanaren laburpena.
2. Gastuaren justifikazio fakturen edo froga baliozko agirien jatorrizko ordainagiriak edo fotokopia konpultsatuak, gastua beste baliabide edo dirulaguntza baten bitartez modu partzialean finantzatu baldin bada; horiek baliozkoak izan beharko dira merkataritza trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna izan beharko dute.
3. Emandako fakturak ordaindu izanaren frogagiriak.
4. Onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela jasotzen duten ziurtagiriak, salbu eta dirulaguntza eskatu zuen unean aurkeztu zituenak iraungi ez badira.
5. Errotulatutako elementuaren argazkia.
6. Diru sarreraren eta gastuen likidazioan agertzen diren laguntzak jasotako bakarrak izan direla, eta dirulaguntzaren eskaeran beste laguntza batzuk eskatu izana ere ageri bazen, haiek ukatu egin direla dioen zinpeko aitorpena.

Betebeharren bat edo batzuk betetzen ez baldin badira, emandako dirulaguntza indargabetu ahal izango da.

Aiarako Udalak, eskariak aurkezteko epea bukatu aurretik eta Dirulaguntzen Legearen 30. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren ondorioetarako eta 60.000,00 euro baino gutxiagoko laguntzak direnean, erabaki ahal izango du onuradunek 1.3 apartatua zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharrean uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 75. artikuluan araututako justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztu beharko dutela.

Hamaikagarrena. Ordainketa

Aurreko oinarrian aipatutakoarekin bat justifikazioa aurkezten denean, Aiarako Kuadrillako langile teknikoak txostena egingo du betekizunak betetzen direla edo ez zehazteko eta dirulaguntza jaso dezakeen jarduketa betetzat jotzeko.

Teknikariak aldeko txostena emanez gero dirulaguntzaren ehuneko 100 ordainduko da, albo batera utzi gabe gutxitzeak ezartzea oinarri hauetan jasotako baldintzekin bat egiten duten eta/edo justifikatu diren jarduketan zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa izan delako.

Hamabigarrena. Hartzaileen betebeharrak

Laguntza hauen onuradunek ondoko betekizunak bete beharko dituzte:

- a) Emakida oinarritzen duen errotulazioa egitea.
- b) Emandako laguntzari buruz udalak eskatutako egiaztaketa neurri posibleak onartzea.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

2025 - 695

20/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalnegoitza.araba.eus/aiara/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416ddb07e937f0b0c00U

c) Deialdi honen hamargarren oinarrian eskatzen den justifikazio dokumentazioa aurkeztea.

Hamahirugarrena. Emandako dirulaguntza galtzea

Dirulaguntzen onuradunek beherago xedatutako baldintzak betetzen ez badituzte, alkate-lehendakariak dirulaguntza osorik edo horren zati bat (jarduketa partzialki bete ez bada) galduko dela ebatziko du, eta, hala dagokionean, jaso diren zenbatekoak gehi dirulaguntza ordaindu den unetik aurrera sortutako berandutze interesak itzultzeko betebeharra ezarriko du, eta hori egiteko transferentzia bat egin beharko da Aiarako Udalaren kontura.

Hauak dira inguruabar horiek:

- Aurkeztutako eskarian edo dokumentazioan adierazitako datuak faltsuak badira, dirulaguntza oso-osorik galduko da eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.
- Dirulaguntzaren emakida arrazoitu zuen jardueraren helburua guztiz edo modu partzialean betetzen ez bada , jasotako dirulaguntza guztiz galdu edo gutxituko da, dagokionaren arabera.
- Justifikazio beharra betetzen ez bada edo behar beste justifikatzen ez bada, dirulaguntza guztiz galdu edo gutxituko da, dagokionaren arabera.
- Dirulaguntzaren zenbatekoak banaka edo bestelako laguntza publiko edo pribatuekin batera dirulaguntza jaso duen lanaren kostua gainditzen badu, emandako dirulaguntza gutxituko da eta, hala dagokionean, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.
- Ahalik eta azkarren Aiarako Udalar jakinarazten ez bazaio bestelako dirulaguntza publikoak edo pribatuak jaso direla, dirulaguntza guztiz galduko da edo jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, nahiz eta Aiarako Udalak dagokion likidazioa onetsita eduki.
- Eta orokorrean, oinarri hauetan onuradunentzat eta likidazioetan aurkeztu beharreko dokumentazioarentzat ezartzen diren betebeharrak ez betetzea.

Hamalagarrena. Zehapenak

Aiarako Udalak, dagokion espedientea ireki aurretik eta ez-betetzeen larritasuna baloratu ondoren, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. kapituluko IV. tituluari jasota dauden zehapen diruzkoak eta ez diruzkoak proposatuko ditu, eta zehapen horiek dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekiko independenteak izango dira. Beti ere, zehapen bat jartzean dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko da.

Jasotako zenbatekoak eta berandutze interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak izango dira establezimendu onuradunen administratzaileak edo legezko ordezkariak.

Hamabosgarrena. Garapena eta interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, Informazio Batzordeak txostena eman eta gero.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59

Oinarri hauetan jasotzen den orotarako, Aiarako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

2025 - 695

20/11/2025

Ebazpenen eta dekretuen liburua / Libro de Resoluciones y Decretos

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udaleregolitzak.araba.eus/aiara/validacionDoc?entidad=AYALA>
Q0144708b02d1416dbb07e937f0b0c00U

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
Vanessa Domínguez Casal (VºBº)	Secretario-Interventor VB	20/11/2025 10:46
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA (AIARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AYALA)	Alkate - Udalburua / Alcalde-Presidente	20/11/2025 11:42
VANESSA DOMINGUEZ CASAL	Secretario-Interventor	20/11/2025 11:59